

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aralar taldeko legebiltzarkide **Mikel Basabe Kortabarrak**, indarrean den Erregelamenduaren babesean, **Kontrolerako plenoan erantzuteko hurrengo GALDERA** egiten dio **Gemma Zabaletari, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailburuari**, "Asociación Solidaria de Ayuda-ASA erakundeak egindako irregulartasun eta balizko iruzurren inguruan".

ZIOA:


Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2009ko azaroaren 25eko aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan langabezian dauden edo-eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonen kontratazioa sustatzeko ezohiko laguntzak indarrean jarri ziren. Diru-laguntzen onuradunen artean, izandako irregulartasunengatik hainbat kexa eta salaketa jaso dituen Asociación Solidaria de Ayuda-ASA egonik, Gemma Zabaleta Enplegu eta Gizarte gaietako sailburuari hurrengo galdera egiten dio:

GALDERA

Asociación Solidaria de Ayuda-ASA erakundeak egindako irregulartasun eta balizko iruzurren aurrean, zer egin asmo du Sailak mota horretako portaerak berriro ere gerta ez daitezen?

Gasteizen, 2011ko maiatzaren 23an

Mikel Basabe Kortabarrak
Aralar taldeko legebiltzarkidea



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
ITZULPEN ZERBITZUA
SERVICIO DE TRADUCCIONES

22287

A la Mesa del Parlamento Vasco

Mikel Basabe Kortabarria, parlamentario del grupo Aralar, al amparo del vigente Reglamento, formula la siguiente **PREGUNTA para respuesta en pleno de control a Gemma Zabaleta, consejera de Empleo y Asuntos Sociales**, sobre las irregularidades y supuestos fraudes de la Asociación Solidaria de Ayuda-ASA.

JUSTIFICACIÓN

Por medio de la Orden de 25 de noviembre de 2009, de la consejera de Empleo y Asuntos Sociales, entraron en vigor las ayudas extraordinarias de apoyo a la contratación de personas desempleadas y/o perceptoras de la renta de garantía de ingresos de la Comunidad Autónoma vasca. Entre los beneficiarios de dichas ayudas se encuentra la Asociación Solidaria de Ayuda-ASA, que ha recibido múltiples quejas y denuncias por irregularidades. Por lo tanto formulamos la siguiente pregunta a la consejera de Empleo y Asuntos Sociales, Gemma Zabaleta:

PREGUNTA

Ante las irregularidades y supuestos fraudes cometidos por la Asociación Solidaria de Ayuda-ASA, ¿qué piensa hacer el departamento para que no se vuelvan a repetir comportamientos de este tipo?

Vitoria-Gasteiz, 23 de mayo de 2011

Mikel Basabe Kortabarria

Parlamentario del grupo Aralar

